

## 2010 PROZESU HEZITZAILEA - BRUNA

Aurreko ikasturtean ikasturtean, 2010.urtean jaiotako 36 nerabek, parte hartzean oinarritutako prozesu bat jarri zuten martxan Gaztelekuan beraien udako egonaldia antolatu eta finantzatzeko.

Urtarrilean hasi eta uztailean bitartean hezitzaileekin biltzen joan ziren hilabetero eta gaztelekutik proposatutako eta beraien borondatez burututako hainbat ekintza egin zituzten. Bide honetan zehar ardurak hartu behar izan zituzten, finantzaketa modu ezberdinak baloratu eta hauek martxan jarri, ondoren irabaziak eta galerak zainduz. Ekintza horietako batzuk aipatzearen, txapelketa eta jolas ezberdinak antolatu zituzten beste nerabe batzuentzat eta Ludotekako haurrentzat, goxoki denda bat jarri zuten martxan gaztelekuko lokalean eta herrira begira, rifak saldu eta zozketak egiteaz aparte, bigarren eskuko azoka bat ere antolatu zuten. Gainera, Udalak gabonen bueltan tokiko merkataritza sustatzeko abiatutako ekimen honetan ere parte hartu dute taldeko sei kidek Ara, Alai, Aia, Telmo, Andresa, Bruna eta honen aitari ahotsa jarritz. Esperientzia honen bidez, nerabeek autonomia pertsonalean, talde-lanean eta kudeaketa ekonomikoan dituzten trebetasunak hobetu dituzte, eta, gainera, loturak eta erantzukizun partekatua indartu dituzte.

Brunaren proiektuan parte hartzeko

aukera eskeini zitzaienean,

pozik onartu zuten

erronka eta urduritasun

eta lotsei aurre eginez,

bi egun pasatu zituzten

grabaketa estudioan

lanean. Pozik daude

emaitzarekin eta

gogotsu

aurrerantzean

ere horrelako

proiektuetan

parte hartzen

jarraitzeko.

